



ELE ARAUTZEKO ORDENANTZA

ZERTARAKO ORDENANTZA eta ZERGATIK DA GARRANTZITSUA?

Ordenantza honen helburua da herriko plan eta proiektuen jarraipen sistematikoagoa egitea eta egoera soziolinguistikoan eragina izango duten plan eta proiektuei ELE egingo zaiela ziurtatzea.

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 7. Artikuluko 7. Atalak ondorengoa xedatzen du: «Udal euskaldunetako egoera soziolinguistikoan eragina izan dezaketen proiektu edo plangintzak onesteko prozeduran, ekimen horiek euskararen erabileraren normalizazioari dagokionez izan lezaketen inpaktua ebaluatuko da, eta ebaluazio horren emaitzen arabera egoki irizten zaizkien neurriak proposatuko dira.».

Aipaturiko artikulua hori garatzen duen 179/2019 Dekretuak, azaroaren 19koa, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoak, zioen azalpenean, argi adierazten du hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioak izaera irekia daukala. Udal bakoitzari tarte zabala ematen zaio, hizkuntza-normalizazioaren arloko erantzukizuna hoberen irizten dion moduan gauzatu dezan, baina beti gutxienezko irizpide batzuk betez.

Hori horrela, ordenantza honen bidez lortu nahi da ELE azterketa tramite soila ez izatea. Gaiari dagokion garrantzia ematea eta udalean gaia kudeatzeko prozedura zehaztuta izatea.

ZER JASOTZEN DU ORDENANTZAK?

Lehen kapituluan xedapen orokorrak jasotzen dira, ELEren helburuak, printzipio orokorrak eta organo eskuduna.

Jarraian, bigarren kapituluan, ebaluatu behar diren planak eta proiektuak zehazten dira, ELE batzordearen osaketa, batzordearen egitekoak eta azkenik ELEren prozedura (2019ko dekretuak zehaztu bezala) eta neurri zuzentzaileak adibide moduan.



Arnasgune ez diren herrien kasuan, herriko auzo bat edo batzuk arnasgune izendatzeko aukera jasotzen du ordenantzak. Hori horrela egiten bada, eranskinetan jaso beharko da zein auzo izendatzen diren arnasgune.

ZEIN EDUKI DIRA AZTERTU BEHARREKOAK?

Ordenantzan jasotzen den edukiaren zati bat dekretuak jasotzen duenari jarraitzen dio, beraz, bere horretan onartzeko modukoa izango litzateke.

Baina badira udalak berak erabaki ahalko dituen atal batzuk:

- **Ebaluatu beharreko plan eta proiektuak:** ordenantzan jasotzen denaz gain, erabaki daiteke beste plan eta proiektu batzuei ere ebaluazioa egitea.
- **ELE batzordea:** batzordeko kideak zeintzuk izango diren proposatzen du ordenantzak, baina udalaren esku geratzen da kide horiek edo beste batzuk izendatzea.
- **ELE batzordearen egitekoa:** ordenantzan zehaztuta badago ere, udalaren ekarpenak jaso daitezke.
- **Arnasgune ez diren herrien kasuan** Udalak erabaki beharko du herriko auzo batzuk arnasgune izendatzen dituen eta, horrenbestez, arnasguneen trataera bera izango duen. UEMak erraztuko ditu auzokako datuak.